


1825etik, Saboyara bidaia egin ondoren, Victor Hugo Frantziako monumentuen suntsipenaren aurka azaldu zen. Beretzat garrantzitsua zen gai hau uneoro gogoratzea. Garai hartatik berak bandalismetzat hartzen zituen bi kontzepturen aurka egin zuen borroka: errauspena eta zaharberitzearen aurka. Estatuaren esku hartzea ere eskatu zuen, garaian eskandaluzkoa zen argudio erabakiorra iruditzen zitzaionaren izenean. Formula, iraultzailea zen.

Hugok behin baino gehiagotan marraztu du arratoiaren dorrea Bingen-en. Askotan kontatu zuen Rin-eko kondaira. 1840tik dorrea zenbait alditan izan da berreraikia, eta kondaira ulertzen lagun dezakeen aztarnarik aurkitzea ezinezko da.



Arratoiaren Dorrea, Victor Hugo, 1840ko irailaren 27an BNF© Roger Viollet.

“Bi alde ditu eraikin batek: erabilera eta edertasuna. Erabilera jabeari dagokio, edertasuna mundu guztiari, zuri, niri, orori. Beraz, birrintzea, norberaren eskubidetik haratago joatea da.”

Eta komentario hau gaineratu zuen 1832an:

“Interes orokorreko kontua dugu hau, interes nazionalekoa. Egunero, interes orokorrak ahotsa goratzen duelarik, legeak isilarazi egiten ditu interes pribatuaren uluak. Jabego pribatua maiz izan da, eta oraindik ere hala izaten da, komunitate sozialaren onerako aldatua. Bortxaz erosten dizute alorra plaza bat egiteko, edo etxea erosten dizute eritegi bat egiteko. Zeure monumentua ere erosiko da. Legeren bat behar izanez gero, berriz diot, egin dadila.”

Uztaileko erregimenari urrun geratzen zaion lege betearazle baten faltan, Guizot-ek, Irakaskuntza Publikoko ministroak, 1835eko urtarrilean “Frantziaren historia orokorraren partetzat hartuak zeuden literatura, filosofia, zientziak eta arteen argitaragabeko monumentuen Batzordea” sortu zuen, izenez zenbaitetan aldatuko zena, azkenean “Monumentuen Batzordea” izenarekin geratuz. Sortu zen momentutik Victor Hugo Batzordeko kidea izan zen, eta ematen zitzaizkien monumentu haiek moztu, harramazkatu eta marruskatzen zituzten arkitekto eta “zaharberritzaileek” egindako gehiegikeriak salatu zituen etengabe.

Erbesteratzearen aurreko bidaietan Hugok marrazki ugari egin zuen. Profesionalei konpetentzia egiteko nahirik gabe, xehetasun arkitektonikoen trazuak gordetzea gustatzen zitzaion. Honi esker ez balitz, ez genituzke xehetasun haiek gaur egun ezagutuko. Gaur egun arte ondare bezala ezagutzen dugunaren alde egin zuena esaldi batean laburbildu daiteke:

BNF © J. Virge.



1832. 1843an Julietteri eskainitako Victor Hugoren autorretratoa. © Coll. Viollet.

1832



1843. urtean, Hugok Santa Maria Gazteluaren marrazki desberdinak egin zituen, Luz-etik gertu dagoena. BNF© J. Vigne.

BNF © J. Vigne.




Mons-eko kanpandorra (1864) 1914ko gudan zehar suntsitua izan zen. Hugok dagoeneko 1837an marraztua zuen. Andamioak ere irudikatzen dituen marrazki honen sekulako zehaztasuna, Victor Hugok arrazoiarekin rococo deituriko guztiarekiko sentitzen zuen gustuaren adierazle den agiri historiko eta testigantza da.

OROI MENA, ONDAREA

Iraganaren kontu eman behar diogu etorkizunari.

«Gerla birrintzaileei», *Revue des Deux Mondes*, 1832 martxoak 1.

BNF © J. Vigne.



Margolanaren azpian, arkatzez: “Guivre (armarri). Fougères (Iratzeak). Eliza ekainaren 7an arratsaldeko 7:00etan.

Pierrefonds-en (1835) krokis hau, Viollet le Duc-en zaharberitze lana neurtzea bermatzen duten agiri arraro horietako bat da.

